

# Shisha Pangma



Frederic Lafitte eta Fernand eta David Gracy aita-semeak, abiatu aurreko prestakizun lanetan. Bob Edme

«Mendira kirol balentriaren egitera doazenek jendearen ezagutzea bazterrerara utzi ohi dute», uste du Fernandek. «Guk biak egiten ditugu, eta, ondorioz, jendea ere guregana etortzen da», zehaztu zuen. Hiriko eta kanpainako bizia ezagutu dute orain arte. «Guretzat, *miseria* deitzen duguna ikusten dugu; baina jende horiek zoriontsu dira; ez dugu nehoiz ikusi gutaz jeros zen nehor», azaldu zuen Fernandek. «Haien aberastasuna beste nonbait da», gaineratu zuen Frederic Lafittek.

## Bi urtez lanean

Badu bi urte proiektu horren lantzen ari zirela. Ideia izan zutenetik, espediziorako diruaren biltzeko aukeren ikertzen hasi ziren. Kamisetak egin zituzten, Azkainen zikrojan bat antolatu zuten, jende batzuek dirua eman diete, izan dadin ofiziale, saltzaile eta abar. «Emeki-emeki proiektu hori bere egin dute», erran digu Fernandek. Dirua zakutik ala zorrotik atera behar zuten, Gracy aitak dioenaren arabera; pertsona bakoitzeko 50.000 liberako gastua baitzuten.

«Jendearengana joan behar da esplikatzeko zer den espedizio bat», azpimarratu zuen Davidek. «Gure heinean, amateur heinean, oso zaila da laguntzaileen aurkitzea», jarraitu zuen Fernandek: «Kirol batzuek estimu handiagoa dute, hala nola pilotak, errugbiak, surfak...». Hein horretako mendia nahiko gauza berria dela iduritzen zaio. Lan asko eskatzen duela aitorturik ere, lan horren fruituez pozten da hirukotea.

Kaskora igotzeko «bide errazena» hautatu dutela erran zigun Davidek. «Lehen aldia da holako mendi bati lotzen gatazkiola. Beraz, xume geldituko gara», esplikatu zigun. «Goratasun horretara zailtasun teknikorik gabe iristen bagara, pozik izango gara», gehitu zuen.

## Bi belaunaldi elkarrekin

Hirukote hau elkarretaratu zen, Hego Ameriketara joateko gogoa baitzuten. «Aitari aipatu nion eta gurekin etortzeko gogoa izan zuen», kontatu zigun Davidek. Geroztik bidaiak elkarrekin egin izan dituzte. Argentinara bidai bat egin zuten, eta berriz itzultzea erabaki zuten, baina mendira joateko. Bi urteren buruan Txilera abiatu ziren. Goi mendietako lehen esperientzia izan zen.

Fernandek aitortu zigunez, goi mendizaletasuna berriki etorri zitzaion. Lehen ere ibilaldiak egiten zituen, baina besterik ez. Errugbilaria zen. Gelditu ondoan lotu zitzaion mendizalatasunari. «Ezin da 45 urtetan horrelako mendien igotzen hasi, lehena go kirolaria izan gabe. Kirola eta oinez ibiltzea, jendearekilako harremanak eta taldeko bizia maite izan behar da», azaldu zuen.

# Azkaindarrak, mendia eta jendea ezagutzera

Fernand eta David Gracy aita-semeak (51 eta 27 urte) eta Frederic Lafitte (27 urte) Shisha Pangmara abiatu ziren irailean. Espedizioak urriaren 16a arte iraunen du. «Buru kolpe bat izan zen Himalayara joateko erabakia», zioen Fernand Gracyk abiatu aitzin.

## Eneko Bidegain

Azkaindarrak ez ziren sekulan izanak Himalayan, baina mendian nahiko ibiliak dira, hala nola Argentinan (Aconcagua eta Cerro Plata), Txilen (Tatio eta Ojos del Salado), Perun, Bolivian eta Marokon. Tibetean hautua ez zuten ustekaberik egin. «Herri txikia da, pixka bat gurea bezalakoa», zehaztu zigun Davidek. Mendiaz gain, herria ere ezagu-

tu nahi dute. «Ez gara luzaz egonen, baina ekartzera ahaleginduko garen irudiak izango dira», gehitu zuen Fernandek. «Ez da balentria baitezpada interesatzen zaiguna, baizik eta zorigaitzez emeki-emeki desageritzen ari den herri baten ikustea». Lehengo espedizioetan ere, mendia ezagutzeaz aparte, jendearen eta kulturen ezagutzeari toki berezia eman diote. Herritarren ezagutze hori «karrikan ibiliz, etxeetan lo eginez, jatetxeetan janez» egin izan dute orain arte.



## Pipas-en aholkuak

✘ Shisha Pangman izan da aurrez Iparraldeko mendizalerik. Azkaindarrek Robert Larrandabururekin harremanak izan dituzte. Pipas izan zen zortzimilako bat igo zuen Ipar Euskal Herriko lehen mendizalea, Shisha Pangma bera, hain justu. «Gauza indibiduala da, lan luzea eskatzen du», adierazi zigun

Fernandek. Prestaketa lan izugarriaz mintzatu zitzaigun. Teknikoki behar den prestaketa, azpiegiturak, janaria eta abar luzea da. Pipasek sail horretan lagundu ditu. «Beti ardatz nagusiei buruz pentsatzen da, baina xehetasun ttipiei buruz ez», zehaztu zigun Davidek. Esperientzia duten jendeek holako aholkuak eman dizkiete. Lan luzea izan da baimenen galdetzea eta administrazio sail gutzia.